

Donetskeko Herri Errepublikaren bandera erakusteagatik epaitua izan zen zaletua absolbitua izan da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 18/04/2024

Bertan behera geratu dira jarri zioten santzioak eta berari eragindako kalteengatik Ertzaintzak prozesu judizial honen kostu guztiak ordaindu beharko dizkio.

Apirilaren 11an **Asier Herraz algotarra epaitu zuten** Bilbon (Bizkaia), San Mames futbol-zelaian Donetskeko Herri Errepublikaren bandera bat ateratzeagatik. Gertakariak 2022ko urrian izan zuten lekuko, Athletic-Athletico Madril partida jolasten hari zen bitartean. Zaletua azaldu zuenez egun artan Donetskeko Herri Errepublikaren ikurrak kendu zioten indar errepresiboak eta 3.001 euroko isuna eta 6 hilabete kirol-esparruetara sartu gabeko zigorra ezarri zioten “Ikur errusiazale bat” eramateagatik.

Egoera honen aurrean Asier Herraz errekurtsio bat jarri zion santzioei eta Bilboko Justizia Jauregian epaiketa bat heman zen, non Athletic klubak eta Ertzaintzak jo zuten bere kontra. Gaur jakinarazi duenez Otan Ez plataformak Asier absolbitua izan da eta berari eragindako kalteengatik Ertzaintzak prozesu judizial honen kostu guztiak ordaindu behar dizkio.

Hala ere, plataformak salatu zuenez hau ez da zigortutako zaletu bakarra, izan ere, Athleticek, espedienteak ireki dizkie hainbat laguni, garaian, Pablo Gonzalez kazetari presoaren aldeko pankarta bat erakusteagatik. Hauek futbol-zelaietara sartzeko bi urteko debekua dute indarrean eta eta isunak ere jarri dizkie klubak.

<https://eh.lahaine.org/donetskeko-herri-errepublikaren-bandera-erakusteagatik>